I ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4876**

**71/2008 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluarena, uztailaren 8koa; honen bidez identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautu dira.**

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko laugarren xedapen gehigarrian ezarri da pertsona fisiko edo juridiko guztiek eta 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren erakunde nortasun gabekoek identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dutela zergen arloko edo zerga ondorioak sortzen dituzten harremanetarako. Identifikazio fiskaleko zenbaki hori Arabako Foru Aldundiak emango du, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Horrez gainera, ezarri da ondoko garapen batean arau bidez ezarriko direla identifikazio fiskaleko zenbakiak esleitzeko eta ezeztatzeko prozedura, haren osaera eta zergen arloko harremanetan erabiltzeko modua.

Foru dekretu honen xedea pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta zenbaki horren osaera arautzea da.

Foru dekretu hau honela egituratu da: zazpi kapitulu, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

I. kapituluan arau orokorrak ezarri dira identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharraz eta hori egiaztatzeko moduaz.

II. kapituluan Zerga Administrazioak Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoei identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko arauak ezarri dira eta III. kapituluan pertsona juridikoei eta nortasunik gabeko erakundeei esleitzeko arauak.

IV. kapituluan enpresaburuek eta profesionalek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako erabili beharreko identifikazio fiskaleko zenbakia arautu da.

V. kapituluan zergapekoek, Zerga Administrazioarekiko harremanetan, zerga ondorioak dituzten eragiketetan eta kreditu erakundeekin egiten dituzten eragiketetan identifikazio fiskaleko zenbakia nola erabili behar duten arautu da, eta ezarri da pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia aldaezina dela.

VI. kapituluan pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiaren osaera arautu da, bai eta Espainiako eta atzerriko erakundeen eta Espainian egoitza ez daukaten erakundeen establezimendu iraunkorren nortasun juridikoaren gakoak ere.

Azkenik, VII. kapituluan identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena arautu da eta ezeztapena gertatzen den kasu bereziak ezarri dira.

Gai honen inguruan Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena eta Kontsultarako Batzordeak egin duena aztertu dira.

Beraz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
ARAU OROKORRAK

1 artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharra eta hori egiaztatzeko modua.

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4876**

**DECRETO FORAL 71/2008, del Consejo de Diputados de 8 de julio, que regula las obligaciones relativas al número de identificación fiscal y su composición.**

La Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, establece en su disposición adicional cuarta que toda persona física o jurídica, así como las entidades sin personalidad a que se refiere el apartado 3 de su artículo 35, tendrán un número de identificación fiscal para sus relaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria. Este número de identificación fiscal será facilitado por la Diputación Foral de Álava, de oficio o a instancia del interesado.

También encomienda a un posterior desarrollo reglamentario la regulación del procedimiento de asignación y revocación, la composición del número de identificación fiscal y la forma en que deberá utilizarse en las relaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria.

El objeto del presente Decreto Foral es regular las obligaciones relativas al número de identificación fiscal así como la composición del número de identificación fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica.

El Decreto Foral se estructura en siete Capítulos, una disposición transitoria, una disposición derogatoria y una disposición final.

El Capítulo I regula las normas generales sobre la obligación de disponer de un número de identificación fiscal y su forma de acreditación.

Los Capítulos II y III se refieren respectivamente a la asignación del número de identificación fiscal a las personas físicas de nacionalidad española y de nacionalidad extranjera así como las normas sobre su asignación por la Administración Tributaria y la asignación del número de identificación fiscal a las personas jurídicas y entidades sin personalidad.

El Capítulo IV regula las especialidades del número de identificación fiscal de los empresarios o profesionales a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Es en el Capítulo V donde se plasma la utilización del número de identificación fiscal ante la Administración Tributaria por los obligados tributarios en operaciones con transcendencia tributaria y en operaciones con entidades de crédito, así como la invariabilidad del número de identificación fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica.

En el Capítulo VI se dispone la composición del número de identificación fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica, así como las claves sobre la forma jurídica de entidades españolas, de entidad extranjera y de establecimiento permanente de una entidad no residente en España.

Y por último en el Capítulo VII, se regula la revocación y los casos especiales de revocación del número de identificación fiscal.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada el día de hoy.

DISPONGO

CAPÍTULO I
NORMAS GENERALES

Artículo 1. Obligación de disponer de un número de identificación fiscal y forma de acreditación.

1. Pertsona fisiko eta juridikoek eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute zergen arloko edo zerga ondorioak sortzen dituzten harremanetarako.

2. Identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dutenek ondokoak erabil ditzakete badaukatela egiaztatzeko: Zerga Administrazioak emandako agiria, nortasun agiri nazionala edo atzerritarraren identifikazio zenbakiaren agiri ofiziala.

3. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa betetzeak ez du salbutzen zerga jakin batzuei buruzko araudietan ezarritako identifikazio kodeak edo gakoak eduki beharretik.

2 artikulua. Arabako Foru Aldundiak identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzea.

Arabako Foru Aldundiak ondoko kasu hauetan dauka identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eskumena:

a) Egoitza Espainiako lurraldean daukaten pertsona fisikoen kasuan, ohiko egoitza Arabako Lurralde Historikoan badaukate.

b) Egoitza Espainiako lurraldean daukaten pertsona juridiko edo nortasun juridikorik gabeko erakundeen kasuan, zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badaukate.

c) Espainian egoitza ez daukaten pertsona fisikoen eta erakundeen kasuan:

a') Espainiako lurraldean ari badira establezimendu iraunkor baten bitartez, zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukatela, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauko 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

b') Espainiako lurraldean ari badira establezimendu iraunkorra ezarri gabe, ordezkariaren egoitza Arabako Lurralde Historian dagoela, edo lurralde horretan zergen arloko edo zerga ondorioak sortuko dituzten ekintzak edo eragiketak egingo badituzte; salbuespena: beste administrazio batek emandako identifikazio fiskaleko zenbakia edukitzea.

## II. KAPITULUA
## PERTSONA FISIKOEI IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA ESLEITZEA

3 artikulua. Espainiako nazionalitatea daukaten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Espainiako nazionalitatea daukaten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia nortasun agiri nazionalaren zenbakia da, atzean egiaztapen kodea edo karakterea daukala (letra larria), hain zuzen ere nortasun agiri nazionalean ageri dena, hari buruzko xedapenekin bat etorriz.

2. Zergen arloko edo zerga ondorioak sortzen dituzten eragiketak egiten dituzten edo halakoetan parte hartzen duten espainiarrek nortasun agiri nazionala eskuratu behar ez badute, atzerrian bizi direlako edo 14 urtetik beherakoak direlako, identifikazio fiskaleko zenbakia lortu behar dute. Horretarako, beren borondatez eska dezakete nortasun agiri nazionala edo Zerga Administrazioari eska diezaiokete identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko. Identifikazio fiskaleko zenbakiak bederatzi karaktere dauzka; hona osaera: hasieran letra bat, zenbakia nolako pertsonari dagokion adierazten duena (egoitza atzerrian daukaten espainiarrei L dagokie eta egoitza Espainian daukatela 14 urtetik beherakoak diren espainiarrei K), gero zazpi karaktere alfazenbakizko, eta amaieran egiaztapen karaktere alfabetiko bat.

Eskatzen ez badute, Zerga Administrazioak ofizioz jardun dezake zergapekoen zentsuan alta emateko eta identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko.

3. Zergen arloko edo zerga ondorioak sortzen dituzten eragiketak egiten dituzten 14 urtetik beherako pertsonak identifikatzeko, adingabearen datuez gainera (identifikazio fiskaleko zenbakia barne) beraren legezko ordezkariaren datuak ere azaldu behar dira.

1. Las personas físicas y jurídicas, así como los obligados tributarios a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, tendrán un número de identificación fiscal para sus relaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria.

2. El número de identificación fiscal podrá acreditarse por su titular mediante la exhibición del documento expedido para su constancia por la Administración Tributaria, del documento nacional de identidad o del documento oficial en que se asigne el número personal de identificación de extranjero.

3. El cumplimiento de lo dispuesto en los apartados anteriores no exime de la obligación de disponer de otros códigos o claves de identificación adicionales según lo que establezca la normativa propia de cada tributo.

Artículo 2. Asignación del número de identificación fiscal por la Diputación Foral de Álava.

La Diputación Foral de Álava será competente para asignar el número de identificación en los siguientes supuestos:

a) Si se trata de personas físicas residentes en territorio español, cuando tengan su residencia habitual en el Territorio Histórico de Álava.

b) Si se trata de personas jurídicas o entidades sin personalidad jurídica domiciliadas en territorio español, cuando su domicilio fiscal radique en el Territorio Histórico de Álava.

c) Si se trata de personas físicas o entidades no residentes en territorio español:

a') Si operan en territorio español mediante establecimiento permanente, cuando el domicilio fiscal de éste radique en el Territorio Histórico de Álava, de acuerdo con lo previsto en el artículo 10 de la Norma Foral 7/1999, de 19 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

b') Si operan en territorio español sin mediación de establecimiento permanente, cuando el domicilio de su representante radique en el Territorio Histórico de Álava o cuando vayan a realizar en dicho territorio actos u operaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria, salvo que con anterioridad les haya sido asignado un número de identificación fiscal por otra Administración.

## CAPÍTULO II
## ASIGNACIÓN DEL NÚMERO DE IDENTIFICACIÓN FISCAL A LAS PERSONAS FÍSICAS

Artículo 3. El número de identificación fiscal de las personas físicas de nacionalidad española.

1. Para las personas físicas de nacionalidad española, el número de identificación fiscal será el número de su documento nacional de identidad seguido del correspondiente código o carácter de verificación, constituido por una letra mayúscula que habrá de constar en el propio documento nacional de identidad, de acuerdo con sus disposiciones reguladoras.

2. Los españoles que realicen o participen en operaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria y no estén obligados a obtener el documento nacional de identidad por residir en el extranjero o por ser menores de 14 años, deberán obtener un número de identificación fiscal propio. Para ello, podrán solicitar el documento nacional de identidad con carácter voluntario o solicitar de la Administración Tributaria la asignación de un número de identificación fiscal. Este último estará integrado por nueve caracteres con la siguiente composición: una letra inicial destinada a indicar la naturaleza de este número, que será la L para los españoles residentes en el extranjero y la K para los españoles que, residiendo en España, sean menores de 14 años; siete caracteres alfanuméricos y un carácter de verificación alfabético.

En el caso de que no lo soliciten, la Administración Tributaria podrá proceder de oficio a darles de alta en el censo de obligados tributarios y a asignarles el número de identificación fiscal que corresponda.

3. Para la identificación de los menores de 14 años en sus relaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria habrán de figurar tanto los datos de la persona menor de 14 años, incluido su número de identificación fiscal, como los de su representante legal.

4 artikulua. Atzerriko nazionalitatea daukaten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Espainiako nazionalitatea ez daukaten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia atzerritarraren identifikazio zenbakia da, Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko eta horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoarekin eta hura garatu duten arauekin bat etorriz esleitzen zaiena.

2. Espainiako nazionalitatea ez daukaten pertsona fisikoek atzerritarraren identifikazio zenbakia ez badaukate eta zergen arloko eragiketak edo zerga ondorioak sortuko dituztenak egingo badituzte, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu behar diote Zerga Administrazioari, bai atzerritarraren identifikazio zenbakia eduki behar dutenek, bai eduki behar ez dutenek. Identifikazio fiskaleko zenbakiak bederatzi karaktere dauzka; hona osaera: hasieran M letra, zenbakia nolako pertsonari dagokion adierazten duena, gero zazpi karaktere alfazenbakizko, eta amaieran egiaztapen karaktere alfabetiko bat.

Eskatzen ez badute, Zerga Administrazioak ofizioz jardun dezake zergapekoen zentsuan alta emateko eta identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko.

5 artikulua. Zerga Administrazioak Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoei identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko arauak.

1. Zerga Administrazioak 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoaren arabera zuzenean esleitzen dituen identifikazio fiskaleko zenbakiak titularrak nortasun agiri ofiziala edo atzerritarraren identifikazio zenbakia eskuratu arte izango dira baliozko.

Identifikazio fiskaleko zenbakia edukita nortasun agiri nazionala edo atzerritarraren identifikazio zenbakia lortzen dutenek bi hileko epealdiaren barruan horren berri eman behar diete Zerga Administrazioari eta identifikazio fiskaleko zenbaki berriaren jakinaren gainean egon behar diren pertsona eta erakunde guztiei. Berria jakinarazi arte lehengo zenbakiak sortuko ditu ondorioak.

2. Pertsona fisiko batek Zerga Administrazioak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia eta nortasun agiri nazionala edo atzerritarraren identifikazio zenbakia badauzka, azken hau lehenetsiko da. Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena jakinarazi behar die interesdunei, 17. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz, eta eragiketak direla eta zenbaki horren berri eduki behar duten pertsona eta erakunde guztiei identifikazio zenbaki baliozkoa jakinarazi behar dietela adieraziko die.

## III. KAPITULUA
## PERTSONA JURIDIKOEI ETA NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ERAKUNDEEI IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA ESLEITZEA

6. artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakia esleituko die pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko erakundeei. Zenbaki aldaezina izango da, hau da, ez da aldatuko pertsona edo erakundea aldatu arren, forma juridikoa edo nazionalitatea aldatu ezean.

2. Administrazio publikoek eta haien menpeko berezko nortasun juridikodun erakundeek identifikazio fiskaleko zenbaki bat eduki dezakete enpresa edo lanbide jardueraren arlo bakoitzeko eta bere kabuz jarduteko gaitasuna duen sail, bulego eta goi organo bakoitzeko.

3. Halaber, ondokoek ere eduki dezakete identifikazio fiskaleko zenbakia, eskatzen badute:

a) Ikastetxe publikoek.

b) Osasun edo laguntza zentro publikoek.

Artículo 4. El número de identificación fiscal de las personas físicas de nacionalidad extranjera.

1. Para las personas físicas que carezcan de la nacionalidad española, el número de identificación fiscal será el número de identidad de extranjero que se les asigne o se les facilite de acuerdo con la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social, y su normativa de desarrollo.

2. Las personas físicas que carezcan de la nacionalidad española y no dispongan del número de identidad de extranjero, bien de forma transitoria por estar obligados a tenerlo o bien de forma definitiva al no estar obligados a ello, deberán solicitar a la Administración Tributaria la asignación de un número de identificación fiscal cuando vayan a realizar operaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria. Dicho número estará integrado por nueve caracteres con la siguiente composición: una letra inicial, que será la M, destinada a indicar la naturaleza de este número, siete caracteres alfanuméricos y un carácter de verificación alfabético.

En el caso de que no lo soliciten, la Administración Tributaria podrá proceder de oficio a darles de alta en el censo de obligados tributarios y a asignarles el número de identificación fiscal que corresponda.

Artículo 5. Normas sobre la asignación del número de identificación fiscal a personas físicas nacionales y extranjeras por la Administración Tributaria.

1. El número de identificación fiscal asignado directamente por la Administración Tributaria de acuerdo con los artículos 3 y 4 tendrá validez en tanto su titular no obtenga el documento nacional de identidad o su número de identidad de extranjero.

Quienes disponiendo de número de identificación fiscal obtengan posteriormente el documento nacional de identidad o un número de identidad de extranjero deberán comunicar en un plazo de dos meses esta circunstancia a la Administración Tributaria y a las demás personas o entidades ante las que deba constar su nuevo número de identificación fiscal. El anterior número de identificación fiscal surtirá efectos hasta la fecha de comunicación del nuevo.

2. Cuando se detecte que una persona física dispone simultáneamente de un número de identificación fiscal asignado por la Administración Tributaria y de un documento nacional de identidad o un número de identidad de extranjero, prevalecerá este último. La Administración Tributaria deberá notificar al interesado la revocación del número de identificación fiscal previamente asignado de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 17, y pondrá en su conocimiento la obligación de comunicar su número válido a todas las personas o entidades a las que deba constar dicho número por razón de sus operaciones.

## CAPÍTULO III
## ASIGNACION DEL NÚMERO DE IDENTIFICACIÓN FISCAL A LAS PERSONAS JURÍDICAS Y ENTIDADES SIN PERSONALIDAD JURÍDICA

Artículo 6. El número de identificación fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica.

1. La Administración Tributaria asignará a las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica un número de identificación fiscal que las identifique, y que será invariable cualesquiera que sean las modificaciones que experimenten aquéllas, salvo que cambie su forma jurídica o nacionalidad.

2. Las distintas Administraciones públicas y los organismos o entidades con personalidad jurídica propia dependientes de cualquiera de aquéllas, podrán disponer de un número de identificación fiscal para cada uno de los sectores de su actividad empresarial o profesional, así como para cada uno de sus departamentos, consejerías, dependencias u órganos superiores, con capacidad gestora propia.

3. Asimismo, podrán disponer de número de identificación fiscal cuando así lo soliciten:

a) Los centros docentes de titularidad pública.

b) Los centros sanitarios o asistenciales de titularidad pública.

c) Espainiako Gurutze Gorriaren gobernu organoek eta osasun edo laguntza zentroek.

d) Erregistro publikoek.

e) Epaitegiek, auzitegiek eta auzitegietako salek.

f) Aldizkari ofizialek, berezko nortasun juridikorik ez badaukate.

4. Berezko nortasun juridikoa daukaten eliz erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia edukiko dute, nahiz eta Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako elizbarruti edo erlijio probintzia bat hartzen duen subjektu pasibo batean integratuta egon.

7. artikulua. Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea.

1. Zergen arloko harremanen edo zerga ondorioak sortuko dituzten harremanen titular izango diren pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu behar dute.

Eskatzen ez badute, Zerga Administrazioak ofizioz jardun dezake zergapekoen zentsuan alta emateko eta identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko.

2. Enpresa edo lanbide jardueraren bat egingo duten pertsona juridikoek eta nortasunik gabeko erakundeek beren jardueran ondasunak edo zerbitzuak eman, egin edo eskuratu, dirua kobratu edo ordaindu eta langileak kontratatu baino lehen eskatu behar dute identifikazio fiskaleko zenbakia. Eskabidea, beti ere, eratu edo egoitza Espainiako lurraldean ezarri eta hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar dute.

3. Eskaera egiteko berariazko ereduaren araberako aitorpena aurkeztu behar dute, eta bertan eskatzen diren datuak adierazi.

4. Foru dekretu honetako 6. artikuluko 3. eta 4. idatz zatietan ezarritako kasuetan, identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eskaera Zerga Administrazioari aurkeztu behar dio berezko nortasun juridikodun erakunde interesdunak edo ministerio sail batek edo autonomia erkidego bateko sail batek. Eskabidean identifikazio fiskaleko zenbakia zein arlo, organo edo zentrotarako erabiliko den zehaztu behar da eta eskaeraren arrazoiak azaldu behar dira.

Eskaera ontzat emanez gero, Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakia esleituko du.

8. artikulua. Pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko erakundeei identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzea.

1. Zerga Administrazioak 10 eguneko epealdiaren barruan esleituko du identifikazio fiskaleko zenbakia.

Zerga Administrazioak interesdunek identifikazio fiskaleko zenbakia, behin-behinekoa zein behin betikoa, eskuratzeko aurkezten dituzten eskabidean adierazitako datuak egiazkoak direnez egiaztatu ahal izango du. Egiaztatzen bada eskabideko datu batzuk ez direla egiazkoak, Zerga Administrazioak zenbakia ukatu ahal izango du interesdunei 10 eguneko entzunaldia eman ondoren (epealdia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da).

2. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia behin-behinekoa izango da interesdunak bere eraketaren eskritura edo hari buruzko agiri sinesgarria eta sozietatearen estatutuak edo agiri baliokidea eta, bidezkoa denean, erregistro publiko batean inskribatuta dagoela frogatzen duen agiria aurkeztu arte.

Ez zaie emango identifikazio fiskaleko zenbakirik, ez behin-behinekorik ez behin betikorik, gutxienez ere eratzeko borondate adostasuna adierazten duen agiria, egilesten duten guztiek sinatua, edo titularkidetasuna frogatzen duen agiri bat aurkezten ez duten pertsona juridiko eta erakundeei.

Eskaera adierazpenaren sinatzaileak eratuko den pertsona juridikoaren, nortasun juridikorik gabeko erakundearen edo taldearen ordezkari gisa ari dela frogatu behar du.

c) Los órganos de gobierno y los centros sanitarios o asistenciales de la Cruz Roja Española.

d) Los registros públicos.

e) Los juzgados, tribunales y salas de los tribunales de justicia.

f) Los boletines oficiales cuando no tengan personalidad jurídica propia.

4. Las entidades eclesiásticas que tengan personalidad jurídica propia tendrán un número de identificación fiscal aunque estén integradas, a efectos del Impuesto sobre Sociedades, en un sujeto pasivo cuyo ámbito sea una diócesis o una provincia religiosa.

Artículo 7. Solicitud del número de identificación fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica.

1. Las personas jurídicas o entidades sin personalidad jurídica que vayan a ser titulares de relaciones de naturaleza o con trascendencia tributaria deberán solicitar la asignación de un número de identificación fiscal.

En el caso de que no lo soliciten, la Administración Tributaria podrá proceder de oficio a darles de alta en el censo de obligados tributarios y a asignarles el número de identificación fiscal que corresponda.

2. Cuando se trate de personas jurídicas o entidades sin personalidad jurídica que vayan a realizar actividades empresariales o profesionales, deberán solicitar su número de identificación fiscal antes de la realización de cualquier entrega, prestación o adquisición de bienes o servicios, de la percepción de cobros o del abono de pagos, o de la contratación de personal laboral, efectuados para el desarrollo de su actividad. En todo caso, la solicitud se formulará dentro del mes siguiente a la fecha de su constitución o de su establecimiento en territorio español.

3. La solicitud se efectuará mediante la presentación de la oportuna declaración, en la que se harán constar las circunstancias que a tal efecto se establezca en el modelo correspondiente.

4. La solicitud de asignación del número de identificación fiscal en los supuestos recogidos en los apartados 3 y 4 del artículo 6 del presente Decreto Foral deberá dirigirse a la Administración Tributaria por la entidad con personalidad jurídica propia interesada o por un departamento ministerial o consejería de una Comunidad Autónoma. En el escrito de solicitud se indicarán los sectores, órganos o centros para los que se solicita un número de identificación fiscal propio y las razones que motivan la petición.

Estimada la petición, la Administración Tributaria procederá a asignar el número de identificación fiscal.

Artículo 8. Asignación del número de identificación fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad.

1. La Administración Tributaria asignará el número de identificación fiscal en el plazo de 10 días.

La Administración Tributaria podrá comprobar la veracidad de los datos comunicados por los interesados en sus solicitudes de número de identificación fiscal provisional o definitivo. Cuando de la comprobación resultara que los datos no son veraces, la Administración Tributaria, previa audiencia a los interesados por un plazo de 10 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación de la apertura de dicho plazo, podrá denegar la asignación de dicho número.

2. El número de identificación fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad tendrá carácter provisional mientras la entidad interesada no haya aportado copia de la escritura pública o documento fehaciente de su constitución y de los estatutos sociales o documento equivalente, así como certificación de su inscripción, cuando proceda, en un registro público.

El número de identificación fiscal, provisional o definitivo, no se asignará a las personas jurídicas o entidades que no aporten, al menos, un documento debidamente firmado en el que los otorgantes manifiesten su acuerdo de voluntades para la constitución de la persona jurídica o entidad u otro documento que acredite situaciones de cotitularidad.

El firmante de la declaración de solicitud deberá acreditar que actúa en representación de la persona jurídica, entidad sin personalidad o colectivo que se compromete a su creación.

3. Erakunde bati behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzen zaionean, zenbakia behin betiko esleitzeko eskatzen diren agiriak aurkeztu behar ditu erregistro egokian inskribatzen denetik edo eraketaren eskritura publikoa edo hari buruzko agiri sinesgarria eta sozietatearen estatutuak edo agiri baliokideak egilesten direnetik, erregistroan inskribatu behar ez badira, hilabete pasatu baino lehen.

Aurreko paragrafoan ezarritako epealdian eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, Zerga Administrazioak aurkezteko agindeia egin ahal izango du eta 10 eguneko epealdia, agindeiaren jakinarazpenaren biharamunetik zenbatu beharrekoa, emango dio interesdunari agiriok aurkezteko edo ezin aurkez ditzakeela frogatzeko. Ezin aurkeztu baditu, interesdunak aurkezteko zenbat denbora behar duen azaldu behar du.

Falta diren agiriak aurkezteko agindeiari kasu egiten ez bazaio behar den aldian eta behar den moduan, esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatu ahal izango da, interesduna entzun ondoren, 17. artikuluan ezarri den bezala.

4. Behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko bidezko adierazpena aurkeztu behar da eta bertan, beharrezkoa bada, behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko aurkeztutako adierazpenean jasotako datuetan gertatu diren aldaketa guztiak agertu, hain zuzen ere Administrazioari dagoeneko jakinarazi ez zaizkionak. Horrekin batera falta diren agiriak aurkeztu behar dira.

Hori bete ondoren behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia esleituko da.

5. Identifikazio fiskaleko zenbakiaren eskabideko dokumentazioa ofiziala ez den hizkuntzaren batean aurkezten bada, Zerga Administrazioak euskarara edo gaztelaniara itzultzeko eskatu ahal izango du.

6. Zerga Administrazioak hitzarmenak sina ditzake erakundeen sorreran parte hartzen duten erakundeekin eta pertsonekin, identifikazio fiskaleko zenbakiak (behin-behinekoak zein behin betikoak) ahalik errazen jakinarazteko. Hitzarmen batean xedatutakoa dela bide Zerga Administrazioak erakunde edo pertsona baten bitartez erakunde bati identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko behar den informazioa jasotzen badu, adierazpena aurkeztu beharra kendu ahal izango dio erakundeari. Hala ere, erakundeak aurreko adierazpenetan emandako datuetan gertatu diren aldaketa guztien berri eman behar dio.

## IV. KAPITULUA
## ENPRESABURUEK ETA PROFESIONALEK BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ONDORIOETARAKO ERABILI BEHARREKO IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA

9. artikulua. Enpresaburuek eta profesionalek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako erabili beharreko identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, hurrengo idatz zatian aipatutako Batasunaren barruko eragiketak egiten dituzten pertsonen eta erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera zehaztutakoa izango da, aurretik ES aurrizkia jarrita, ISO-3166 alfa 2 nazioarteko kode estandarrarekin bat etorriz.

Zenbaki hori interesdunak Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan sartzeko eskatuz gero esleituko da, indarreko legerian ezarritakoari lotuta. Zerga Administrazioak zenbakiaren esleipena uka dezake foru dekretu honetako 8. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoa gertatuz gero, bai eta hurrengo paragrafoan ezarritako kasuan ere.

Behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu zaion pertsona edo erakunde batek ez badu aurkezten behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia eskuratzeko behar den dokumentazioa foru dekretu honetako 8. artikuluko 3. idatz zatian ezarritako epealdian

3. Cuando se asigne un número de identificación fiscal provisional, la entidad quedará obligada a la aportación de la documentación pendiente necesaria para la asignación del número de identificación fiscal definitivo en el plazo de un mes desde la inscripción en el registro correspondiente o desde el otorgamiento de las escrituras públicas o documento fehaciente de su constitución y de los estatutos sociales o documentos equivalentes de su constitución, cuando no fuera necesaria la inscripción de los mismos en el registro correspondiente.

Transcurrido el plazo al que se refiere el párrafo anterior sin que se haya aportado la documentación pendiente, la Administración Tributaria podrá requerir su aportación otorgando un plazo máximo de 10 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para su presentación o para que se justifiquen los motivos que la imposibiliten, con indicación en tal caso por el interesado del plazo necesario para su aportación definitiva.

La falta de atención en tiempo y forma del requerimiento para la aportación de la documentación pendiente podrá determinar, previa audiencia del interesado, la revocación del número de identificación asignado, en los términos a que se refiere el artículo 17.

4. Para solicitar el número de identificación fiscal definitivo se deberá presentar la oportuna declaración, en la que se harán constar, en su caso, todas las modificaciones que se hayan producido respecto de los datos consignados en la declaración presentada para solicitar el número de identificación fiscal provisional que todavía no hayan sido comunicados a la Administración con anterioridad, y a la que se acompañará la documentación pendiente.

Cumplida esta obligación, se asignará el número de identificación fiscal definitivo.

5. La Administración Tributaria podrá exigir una traducción al euskera o al castellano de la documentación aportada para la asignación del número de identificación fiscal cuando aquélla esté redactada en lengua no oficial.

6. La Administración Tributaria podrá suscribir convenios con los organismos, instituciones o personas que intervienen en el proceso de creación de entidades para facilitar la comunicación del número de identificación fiscal, provisional o definitivo, asignado. Cuando en virtud de lo dispuesto en un convenio, la Administración Tributaria tenga conocimiento por medio de organismos, instituciones o personas de la información necesaria para asignar a una entidad el número de identificación fiscal, podrá exonerar a la entidad de presentar la declaración para solicitar la asignación de dicho número, sin perjuicio de la obligación que incumbe a la entidad de comunicar las modificaciones que se hayan producido respecto de la información que haya hecho constar en las declaraciones que haya presentado con anterioridad.

## CAPÍTULO IV
## ESPECIALIDADES DEL NUMERO DE IDENTIFICACIÓN FISCAL DE LOS EMPRESARIOS O PROFESIONALES A EFECTOS DEL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

Artículo 9. Especialidades del número de identificación fiscal de los empresarios o profesionales a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido.

1. A efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido, para las personas o entidades que realicen operaciones intracomunitarias a las que se refiere el apartado 2 siguiente, el número de identificación será el definido de acuerdo con lo establecido en este Decreto Foral, al que se antepondrá el prefijo ES, conforme al estándar internacional código ISO-3166 alfa 2.

Dicho número se asignará cuando se solicite por el interesado la inclusión en el Registro de operadores intracomunitarios, en la forma prevista en la legislación vigente. La Administración Tributaria podrá denegar la asignación de este número en el supuesto comprendido en el apartado 1 del artículo 8 de este Decreto Foral, así como en el caso previsto en el párrafo siguiente.

Cuando las personas o entidades a las que se haya asignado un número de identificación fiscal provisional no aporten, en el plazo establecido en el apartado 3 del artículo 8 de este Decreto Foral o, en su caso, en el plazo otorgado en el requerimiento efectuado a

edo, bestela, artikulu horretan aipatutako agindeian emandako epealdian (salbuespena: behar bezala frogatzea epealdian ezin duela aurkeztu), Zerga Administrazioak baja eman ahal izango dio Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan eta Esportatzaileen eta Beste Eragile Ekonomiko Batzuen Erregistroan.

Zerga Administrazioak ez badu ebazpenik ematen hiru hileko epealdian, zenbakia ukatutzat jo daiteke.

2. Aurreko idatz zatian azaldutako identifikazio fiskaleko zenbakia pertsona eta erakunde hauei esleituko zaie:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean dauden ondasun emateak, zerbitzuak edo Batasunaren barruko ondasun eskuraketak egiten dituzten enpresaburuei eta profesionalei, are Batasunaren barruan eskuratzen diren ondasunak atzerrian enpresa edo lanbide jarduerak egiteko erabiltzen badira ere.

b) Enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoei, Batasunaren barruan egiten dituzten ondasun eskuraketak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean badaude, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 13.1. eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

3. Aurreko 2. idatz zatian xedatutakoa gorabehera, ondoko pertsona eta erakundeei ez zaie esleituko identifikazio fiskaleko berariazko zenbakirik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako:

a) Zergaren ordainketan zor guztia edo haren zati bat kentzeko eskubidea ematen ez duten eragiketak baizik egiten ez dituzten subjektu pasiboei, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatu ahal zaien jarduerak baizik egiten ez dituztenei eta ez enpresaburu ez profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoei, baldin eta Batasunaren barruan egiten dituzten ondasun eskuraketak ez badaude Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Aurreko letran adierazitakoei eta ez enpresaburu ez profesional gisa ez dihardutenei, Batasunaren barruan garraiobide berriak eskuratzen dituztenean.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 5.Bat.e) artikuluan adierazitakoei.

d) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio eremuan egoiliartuta ez dauden enpresaburu eta profesionalei, baldin eta lurralde horretan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 84. artikuluko 1. idatz zatiko 2, 3 eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera zerga horren kargapean ez dauden eragiketak baizik egiten ez badituzte.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio eremuan egoiliartuta ez dauden enpresaburu eta profesionalei, baldin eta lurralde horretan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 26. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako Batasunaren barruko ondasun eskuraketak eta haien ondoriozko emateak baizik egiten ez badituzte.

4. Batasuneko beste estatu batzuetan ondasun emateak edo zerbitzuak egiten dituzten pertsonek eta erakundeek Zerga Administrazioari eska diezaiokete berrets ditzala Europar Batasuneko estatuek eragiketen jasotzaileei esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiak.

5. Batasuneko beste estatu batzuetara doazen ondasun emateak egiten dituzten enpresaburuek eta profesionalek eta estatu horietan zerbitzuak egiten dituztenek Zerga Administrazioari eska diezaiokete berrets ditzala Europar Batasuneko estatuek eragiketen jasotzaileei esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiak.

V. KAPITULUA
NOLA ERABILI IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA ZERGA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETAN

10. artikulua. Nola erabili identifikazio fiskaleko zenbakia Zerga Administrazioarekiko harremanetan.

que se refiere dicho artículo, la documentación necesaria para obtener el número de identificación fiscal definitivo, salvo que en dichos plazos justifiquen debidamente la imposibilidad de su aportación, la Administración Tributaria podrá darles de baja en los Registros de operadores intracomunitarios y de exportadores y otros operadores económicos en régimen comercial.

Si la Administración Tributaria no hubiera resuelto en un plazo de tres meses, podrá considerarse denegada la asignación del número solicitado.

2. El número de identificación fiscal definido en el apartado anterior se asignará a las siguientes personas o entidades:

a) Los empresarios o profesionales que realicen entregas de bienes, prestaciones de servicios o adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas al citado impuesto, incluso si los bienes objeto de dichas adquisiciones intracomunitarias se utilizan en la realización de actividades empresariales o profesionales en el extranjero.

b) Las personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales, cuando las adquisiciones intracomunitarias de bienes que efectúen estén sujetas al Impuesto sobre el Valor Añadido, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 13.1º y 14 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

3. No obstante lo dispuesto en el apartado 2 anterior, no se asignará el número de identificación específico a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido, a las siguientes personas o entidades:

a) Los sujetos pasivos que realicen exclusivamente operaciones que no atribuyan el derecho a la deducción total o parcial del Impuesto o que realicen exclusivamente actividades a las que sea aplicable el régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca o las personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales, cuando las adquisiciones intracomunitarias de bienes efectuadas por dichas personas no estén sujetas al Impuesto sobre el Valor Añadido en virtud de lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

b) Las indicadas en la letra anterior y las que no actúen como empresarios o profesionales, cuando realicen adquisiciones intracomunitarias de medios de transporte nuevos.

c) Las comprendidas en el artículo 5.Uno.e) del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

d) Los empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto sobre el Valor Añadido, que realicen en dicho territorio exclusivamente operaciones por las cuales no sean sujetos pasivos, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 84.Uno, números 2º, 3º y 4º del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

e) Los empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto sobre el Valor Añadido que realicen en el mismo exclusivamente las adquisiciones intracomunitarias de bienes y entregas subsiguientes a las que se refiere el artículo 26. Tres, del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

4. Las personas o entidades que entreguen bienes o efectúen prestaciones de servicios que se localicen en otros Estados miembros podrán solicitar a la Administración Tributaria la confirmación del número de identificación fiscal atribuido por cualquier Estado miembro de la Comunidad Europea a los destinatarios de dichas operaciones.

5. Los empresarios o profesionales que realicen entregas de bienes con destino a otros Estados miembros o que efectúen prestaciones de servicios que se localicen en otros Estados miembros, podrán solicitar al órgano competente de la Administración Tributaria la confirmación del número de identificación fiscal atribuido por cualquier Estado miembro de la Comunidad Europea a los destinatarios de las citadas operaciones.

CAPÍTULO V
UTILIZACION DEL NÚMERO DE IDENTIFICACIÓN FISCAL ANTE LA ADMINISTRACIÓN TRIBUTARIA

Artículo 10. Utilización del número de identificación fiscal ante la Administración Tributaria.

1. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, zergapekoek beren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar dute Zerga Administrazioari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitorpen, berriemate eta idazki guztietan. Zenbaki hori ez badaukate, esleitzeko eskatu behar dute foru dekretu honetako 3, 4 eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakirik ez duten autolikidazioak, aitorpenak, berriemateak eta idazkiak onar ditzake.

Zergapekoak ez badauka identifikazio fiskaleko zenbakia, izapidetzerako ezinbestekoa da hura aurkeztea. Zenbakia ez daukan zergapeko batek autolikidazioa, aitorpena, berriematea edo idazkia aurkezten duenetik 10 eguneko epealdian identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu dela egiaztatu ezean, ez aurkeztutzat jo ahal izango da.

2. Zergapekoek zergen arloko eragiketak edo zerga ondorioak dituzten eragiketak egiten dituzten pertsona eta erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiak jarri behar dituzte Zerga Administrazioari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitorpen, berriemate eta idazki guztietan, foru dekretu honetan edo beste xedapen batzuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Idatz zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazteko eska diezaiekete zergen arloko eragiketak edo zerga ondorioak dituzten eragiketak egiten dituzten pertsona eta erakundeei. Pertsona eta erakunde horiek zenbakia jakinarazi behar diete, bai eta egiaztatu ere, beharrezkoa bada, foru dekretu honetako 1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

11. artikulua. Nola erabili identifikazio fiskaleko zenbakia zerga ondorioak sortzen dituzten eragiketetan.

